

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2010eko abenduaren 29a. VIII. urtea. 2.148. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

4.575.750 eurotako aurrekontua onartu dute


Ibarrako Udalak datorren urterako diru-sarrera zein gastuak onartu ditu; 560.855 euro bideratuko dituzte inbertsioetara **6**

Lehen sektorea indartzeko akordioa sinatu dute Tolosak eta Allarizek

Landa auzoak garatzeko hitzarmena ere bada Galiziako herriarekin sinatutako akordioa **5**

Eusko Label Binakako Txapelketa izango da Asteasuko Usarrabin etzi

Urrezko mailako hirugarren jardunaldia izango da eta zilarrezkoan lehenengoa; Urtezaharreko jaialdia 17:00etatik aurrera izango da **4**



→ **Aspertzeko astirik ez.** Eguberriak direla eta etxeko txikienek jai dute egun hauetan, baina ez dute aspertzeko denborarik izango. Izan ere, Anoeta, Ibarra, Irura eta Tolosa bezalako herrietan ekitaldi ugari antolatu dituzte txikienezako. Irudian Ibarrrako kultur etxeko atzoko Elvi sabel hitzunaren emanaldia ikusi daiteke. **5**



Egin zure erosketak Mugarren

MUGAR
MODA INTIMA

Nafarroa etorb. 16 • Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • Tel.: 943 65 40 37
TOLOSA



Opari praktikook Mugarren

Irudia > Aisia



GABONETAKO HAUR PARKEA TXIKIENEN GOZAMENA

Badute non eta zerekin jolas egin Tolosako gaztetxoek Eguberrietan. Izan ere, pasa den urtean bezala, Zerkautsia jolasean aritzeko leku paregabearen bilakatu da. Gabonetako haur parkean guztien gusturako gailuak to-

patuko dituzte: txu-txu trenak, aereogiroa, txapa eta marrazki tailerrak, bideojokoak, puzgailuak... Aurrekoetan bezala, harrera oso ona ari da izaten jolastokia. Uneoro gailu eta jolas guztiak etenik gabe martxan

ikusten dira, eta gaztetxoek ederki igarotzen dutela hauekin. Eta, noski, gurasoak ere pozik. Bihar arte, goiz eta arratsaldez egongo da irekita, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara, eta sarrera doakoa da...i.t.



2011 agenda
Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

‘Ozeko magoa’ bihar ikusgai Topic zentroan

Flamenkoa, zuzeneko musikak eta txotxongiloek bat egiten dute lan honetan; 18:00etan hasiko da

Erredakzioa Kultura

Andaluziako Buho/Maravillas taldeak zuzeneko musika, flamenkoa eta txotxongiloak uzartzen dituen *Ozeko magoa* ikuskizuna eskainiko du bihar, 18:00etan, Topic zentroan.

Dorothy da antzezlan honetako pertsonaia nagusia. Kolpe bat hartuko du, eta Ozeko mundu miragarria iritsiko da. Etxera itzultzeko bidea topatu nahian, hainbat pertsonaia eta oztopo aurkituko ditu.

Kontakizun honetan, pertsonaia bakoitzak maitasuna, jakintza edota familia bezalako bizitzeko funtsezko bertuteak nola bilatzen dituen ikusi ahaliko da. Emanaldia 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzat eta familientzat da aproposa. Hurrek 4 euro ordaindu beharko dute, eta helduek 7.



Indekitzen taldeko kideak. ESTI ZEIZA

Tolosako hiru talde gaur Bonberenean

Indekitzen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tangana taldeak ariko dira 22:30etik aurrera

Erredakzioa Musika

Ekitaldi ugari prestatu dituzte Bonberenean urte amaierarako. Hain zuzen ere, *Gustoko bidean, aldaparik ez! Bonberenea 13 urte martxan!* lelopean ari dira burutzen ekintzak, eta gaur izango

dira egitaraua itxiko dutenak. Hiru kontzertu prestatu dituzte gaurko, 22:30etik aurrera.

Indekitzen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tangana dira Bonbereneako taula gainera igoko direnak. Hiru taldeak tolosarrak dira. Indekitzen eta Glaukoma Sound System taldeak Otsabi elkartean sortu ziren eta han entseatzeko dute. Dolce Tangana, berriaz, Bonbereneako harrobitik dator. Bonbereneako ordezkariek zuzeneko hauekin «sekulako giroa» sortuko dela aurreikusten dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosaldeko Topagunean makillaje ikastaroa egin zuten. I. GARCIA



Iruako pilotalekuan Diskoiaian jolastu eta dantzatu zuten hainbat herritarrek. I. GARCIA

Oporretan, era guztietako ekitaldiak

Anoetan, Ibarra, Irura Alegialdean eta Tolosan hainbat ekitaldi izan zituzten atzo; gaur ere bada zer egin eskualdean

Erredakzioa

Ikasleentzako oporrak izan ohi dira Eguberrietan eta adin guztietako ekitaldiak antolatzen dituzte eskualdeko hainbat herritan. Atzokoan, esaterako, Ibarra

Elvi sabel hiztunaren saioa izan zuten ikusgai. 30 lagun inguru izan ziren Elvi eta bere lagun Martinen gorabeherak entzuten. Besteak beste, hipnosia egiten erakutsi zien.

Iruran ere izan zuten bertako gazteek arratsalde pasa ederra egiteko aukera. Gaztelekuan Inuxente eguna ospatu zuten eta pilotalekuan Diskoiaia egin zuten. Bertan, haur, gazte zein helduek parte hartu ahal izan zuten dantzarekin lotuta zeuden joko ezberdinak eginez.

Anoetan Txuri-Urdinera irteera egin zuten, goiza patinatzen pasatzeko. Alegialdean Gabonetako IX. Pilota Topaketaren finalerdiak jokatu ziren eta, beraz, bihar Amezketan jokatuko diren finalerako pilotariak zehaztuta geratu dira.

Tolosan Gazte Astearen baitan makillaje ikastaroa egin zuten. Oinarriko aholkuak eman zituzten ikastaroko begiraleek. Gaurkorako 40 lagun inguru joango dira autobusean euskal selekzioaren partida ikustera Bilbora.



Elvi sabel hiztunak egindako saioaren une bat. E. EZEIZA

↓ Gaurko ekitaldiak

IBARRA

■ **11:30.** *Gabonetako euskal ipuinak* saioa Ixabel Milleten eskutik, kultur etxean.

IRURA

■ **16:00-20:00.** Talogintza ikastaroa.

■ **17:30.** Ane Monna, Oskola eta karramarroi taldearen eskutik, *Harritsu Maritxu* antzezlanak Kulturunean.

LARRAUL

■ **17:00.** Ra Bueno ipuin kontariaren emanaldia kultur etxean.

TOLOSA

■ **Gazte astea.** Euskal selekzioak Bilbon jokatuko duen futbol partida ikustera 18:30ean aterako dira Trianguloatik.

■ **Gabonetako haur parkea.** 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara zabalik Zerkausion.

Irudia ◊ Albiztur



IPUIN KONTAKETA UDALETXEAN

Albiztur eskolako ikasle, irakaste eta gurasoek ipuin kontaketa-ekin eman zioten hasiera Eguberrietako oporrei. Eskolan proiektu desberdinak erabiltzen dituzte ardatz bezala ikasketaren prozesu moduan eta ikasurtearen lehen hiruhilekoan ipuina izan zen gaia. Horrela, gaiari amaiera emateko ipuin kontaketa egin zuten ikasleek gurasoen aurrean udaletxeko aretoan. Haur Hezkuntzakoek ere parte hartu zuten. Aurretik grabatuta bideoa erakutsi zuten. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan 100 m²-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. Interesatuek deitu 687 40 52 33 telefono zenbakira.

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. Interesatuek deitu 635 75 09 15 telefono zenbakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Harremanetarako telefono zenbakia: 635 75 09 15.



Amasako jaietan Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jexux Mari Mujika ibartarra aizkoran. E.MAIZ

Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketa etzi

Eusko Labeleko urrezko eta zilarrezko mailako txapelketak jokatu dituzte 17:00etan hasita Usarrabi pilotalekuan

Erredakzioa Asteasu

Beste urte batez Asteasuko herriak, urteko azken egunean Herri Kirol jaialdia hartuko du. Aizkolarien txanda izango da oraingoan ere. Bertan Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako

kanporaketak jokatu dira urrezko eta zilarrezkoen mailan. Usarrabi pilotalekuan izango da eta saioa 17:00etatik aurrera.

Urrezko mailan, hirugarren jardunaldia izango da etziko. B. taldearen barnean, Arria V.a eta Jon Rekondo bikotea, Jesus Mari Mujika eta Joseba Otaegi gipuzkoarren aurka arituko dira. Azken hauei, aurrera jarraitu nahi badute behintzat, irabaztea beste aukerarik ez zaie geratzen. Lehen jardunaldian, Nazabal eta Jauregi bikotearen aurka galdu egin baitzuten.

Maila honetan egin beharreko lana ohikoa izango da. Sei modalitate ezberdinetan, 28 enbor moztu beharko dituzte.

Zilarrezko mailako txapelketan lehen kanporaketa jokatu da. Bertan, Xabier Zaldúa eta Jokin Alkizaletxe II.a bikotea, Xabier Dorronsoro eta Aratz Mugerza III.aren aurka arituko dira. Hiru modalitate ezberdinetan, 14 enbor moztu beharko dituzte. Zilarreko kategorian sei bikotek parte hartuko dute. Aizkolarik gazte eta ez hain gazteen jardunaz gozatzeko aukera izango da.

Etixeraten mozioari eta deialdiei atxikimendua

Asteasuko Udalak ohiko osoko bilkuran Aiztondo bailarako Etxerategiaren mozioa onartu du

Erredakzioa Asteasu

Asteasuko Udalak, hilaren 16an egindako ohiko osoko bilkuran Aiztondo bailarako Etxerategiaren mozioa onartu zuen. Bertan, udal ordezkariak mozioa onartzeaz gain, deialdiei ere atxikimendua azaldu zieten.

Asteasuko Udalak, ohiko osoko bilkurara eraman zuen Etxerategiaren mozioa onartu zuen. Mozioan agertzen den manifestua irakurri eta onartzeaz gain, hilaren 31rako deitzen den manifestuzko atxikimendua azaldu zuten. «Villabonako Errebote plaza-tik abiatuta burutuko den manifestazioarekin bat egitea.

Horretarako, udal delegazio sendo batek aipatu manifestazioan parte parte hartzeko konpromisoarekin».

Era berean, «Manifestuari atxikimendua eman eta komunikabide eta herritarrei bando bidez parte hartzera gonbidatzea». Baita ere, «preso eta senideek bizi duten bidegabeko egoeraren aurrean, bere konpromisoa hartzen du eta eskubide urraketan aurrean presoekin senide eta lagunei babesa eta laguntza emateko» konpromisoa hartu du.

↓ Manifestazioa

ABENDUAK 31, OSTIRALA

■ **19:00.** Aiztondo bailarako Etxerategiaren, herritarrek eta Udalen deitu dute. Euskal Presoen eskubideen aldeko manifestazioa Villabonako Errebote plaza-tik abiatuko da.



Asteasuko udaletxeak mozioa onartu du. JOXEMI SAIZAR

Irudia > Villabona



BEHAR ZANAKO SASKIAK

Behar Zana Kirol Elkarteak Egu-berrietako saskiak zozketatu ditu. Saski Txikiak, Antonio Abaigar, Rafael Mariezkurrena eta Mertxe Alustizari tokatu zaizkie. Saski handia berriz, Beñat Elempuruzentzat izan da. Pilotari eskolako Juanito Martinez lehendakariak banatu ditu. HITZA

Blai
Jantziak eta Osagaiak
Neurriak 38tik 60ra
Tel.: 943 11 72 43
lurre 10 behea • TOLOSA

www.euskalherriko PLaza.com % 10eko deskontua

AGARRA
AGARRA
AGARRA

@ **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak paperean eta webgunean berrikuntzak izan ditu. Orain, internet bidez azpi eskualde bakoitza jarraitzeko aukera duzu: www.tolosa.hitza.info, www.anoetaldea.hitza.info, www.leitzaldea.hitza.info, www.ibarraldea.hitza.info, www.alegaldea.hitza.info eta www.villabona-aiztondo.hitza.info orri hauetan sartuz. Bestela, webgune orokor hau bisitatu dezakezu: www.tolosaldea.hitza.info

Tolosa eta Allariz elkarlanean

Lehen sektorea eta landa auzoak garatzeko helburuz lankidetzaz hitzarmena sinatu dute bi udalek

Iñigo Terradillos Gizartea

Tolosako Udalak eta Allarizko Udalak (Orense, Galizia) zuten harremana sendotu dute, sinatu duten lankidetzaz hitzarmenari esker. Lehen sektorea eta landa auzoen garapena bultzatzeko lan egitea izango du helburu nagusi bi herrien arteko elkarlanak.

Hala, arlo horietan duten eskarmentua baliatuko dute, dituzten esperientziak, proiektuak edota ezaugarriak partekatuz. Tolosako Udalak, esaterako, azoka eta merkatuen antolaketan esperientzia «handia» du, eta horren adibide dira larunbateroko azokak eta urtean zehar antolatzen dituen azoka bereziak. Allarizko Udalak, berriz, «landa auzoen inguruan lan egitea zer den ondo ezagutzen du», 14 parrokia eta 2.000 lagun baino gehiago bizi diren 92 landa auzo baititu.

Azokak antolatzen laguntza

Bada, lehen sektoreari dagozkion lan batzuk elkarrekin garatuko dituzte, hainbat azoka eta merkataritza arlo ezberdinen ildoak elkarrekin landuz. Tolosako Udalaren kasuan, esaterako, larunbatetan egin ohi duen azokaren inguruan aholkularitza emango dio, Allarizko Udalak ere gisa bereko azoka bat antolatzeko beharrezko laguntza eskainiz. Azoka berezien kasuan, Txuletaren Festa bezalako ekimenak garatzen eta egikaritzen lagunduko dio.

Landaretza eta lorezaintza sarea

Allarizko Udalak, berriz, landa auzoak sustatzeko egin daitezkeen ekintzen inguruan emango dio laguntza Tolosako Udalari. Hala, *Dastamenaren parkea* izeneko eskainiko dio Allarizek Tolosari. Hau Alondegia plazan jartzeko asmoa dute.



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Francisco Garcia Allarizko alkatea lankidetzaz hitzarmena sinatzen. HITZA

Horiez gain, Allariz eta Tolosako Udalek landaretza eta lorezaintza sarea osatuko dute, beste hainbat herrietako lankidetzaz eta partaidetzaz sustatuz.

Aurrera begira garatuko dituzten jarduerak hitzarmen berezien bidez zehaztuko dituzte, eta horietan bi aldeek bete beharreko lanak, aurrekontuak, finantzabideak eta kasuan kasuko zehaztapen guztiak adostu eta bilduko dituzte. Bestalde, iragan abenduaren 5ean sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenak ez du amaiera datarik, eta bi aldeek erabakitzen duten arte luzatuko da.

2003az geroztik harremana

Tolosak eta Allarizek 2003. urteetik dute harremana. Anxo Quintana bertako alkate izandakoa da, eta Jokin Bildarratzek harremana du berarekin, senatari izan zen garaitik. Horrela sortu zen bi herrien arteko harremana.

«Urte horretatik hangotarrak gurera etortzen hasi ziren, eta gu hara joaten», azaltzen du Jokin Bildarratzek. «Esaterako, Tolosan bezala, goxoen eguna izaten dute Allarizen, almendra delarik hango izarra, eta 2003an Gorrotxategi joan zen hango azokan parte hartzera, gure ordezkari

gisa». Allarizeko ere Tolosa Goxua azokan parte hartu izan dute, baina horrez gain, Tolosa bisitatu eta ezagutzeko aukera izan dute urte hauetan guztietan. «Larunbateroko azokak, batez ere, asko gustatu zaizkie, eta baita Txuletaren Festa bezalako ekimenak, eta horiek han antolatzen hastea dute helburu». Horretan aholkularitza emango die Tolosako Udalak.

Bestalde, Tolosako alkateak azaltzen duenez, «9.000 biztanle izateko oso aurreratuta dagoen herria da Allariz, eta 50.000 biztanle dituen herri batek eskaintzen ez dituen zerbitzu ugari ditu». Beraz, hango ereduak aintzat hartzea «garrantzitsua» izango da Tolosarentzat, «batez ere, landa auzoekin loturikoak».

Bi herrien arteko lankidetzaren ikur moduan, Tolosak «opari» bat jasoko du laster, *Dastamenaren parkea*, hain zuzen ere. «Portugalgo herri batekin batera, europar proiektu batean hartu du parte Allarizek, eta horri esker lorategi ugari ditu herrian; bada, lorategi horietako bat oparitu egin digute, eta laster ekarriko dute Tolosara. Alondegi plazan izango du kokagunea», azaltzen du Bildarratzek.

↓ Datuak

LANKIDETZAZ HITZARMENA

- **Zer.** Tolosako Udala eta Allarizko Udalaren artean lankidetzaz hitzarmena sinatu dute.
- **Helburua.** Lehen sektorea eta landa auzoak garatzeko elkarrekin lan egitea.
- **Lankidetzarako arloak.** Tolosako Udalak larunbateroko azoka eta txuletaren festa bezalako azoka bereziak antolatzen lagunduko dio Allarizko Udalari. Allarizko Udalak, berriz, landa auzoak sustatzeko egin beharreko ekintzak garatzen lagunduko dio Tolosakoari. Hala, bien artean landaretza eta lorezaintza sarea ere osatuko dute.
- **Lan ildoak.** Aholkularitza emango diete elkarri. Edukiak garatzea, proiektuak definitzea eta egitasmoak abian jartzea izango da, besteak beste, elkarri egiten lagunduko diotena.
- **Hitzarmena.** Abenduaren 5ean sinatu duten lankidetzaz hitzarmena, eta ez du amaiera datarik, beraz, bi aldeek hala erabaki arte luzatuko dute.

→ Laburrak

Jaiotzen lehiaketan parte hartzeko aukera

GIZARTEA San Bernardo, Ttentek, Kazkabarra, eta Kiriño aisialdi taldeek Jaiotzen Lehiaketan parte hartzeko deialdia luzatu dute. Bihar izango da izena emateko azken eguna. Horretarako, Kultur Etxera jo beharko da edota www.zazpitantriangulon.com web orriaren bidez egin. Bestela, urtarrilaren 5ean bertan egin ahalko da, Plaza Zaharrean, 18:30ak baino lehen. Taldeka eman daiteke izena, eta hauek, gehienez, lau lagun ezosatuak egon beharko dute. Sari potoloak eskuratu ahalko dituzte parte-hartzaileek. Epaimahalkideek jaiotza egiteko eskulanaren trebetasuna, originaltasuna edota abilezia bezalako ezaugarriak hartuko dituzte kontuan.

Dendarientzako kartoi bilketa ez dute egingo etzi

GIZARTEA Tolosaldeko Man-komunitateetik adierazi dutenez, dendariak zuzendutako kartoi bilketa zerbitzurik ez dute egingo etzi, hilaren 31n. Beraz, dendariak kartoiak kaxak ohiko tokietara ateratu ez dituzten eskatzen diete, bide publikoan kartoiak gera ez dadin.

Film ugari ikusgai Gabonetan, Leidorren

ZINEMA Zine egitarau osoa prestatu dute Eguberrietarako Leidor aretoan. Bihar, esaterako, zine forum saioa izango da, 19:15ean eta 21:45ean. *Exit through the gift shop* filma jatorrizko bertsoian ikusteko aukera izango da. Larunbatean, *Midas erregearen altxorra* (euskaraz) filma emango dute gaztetxentzat, 17:00etan. 19:30ean, *Heroes* izango da ikusgai, eta 22:30ean, *Caza a la espia*. Igan-dean, berriz, *Harry Potter* emango dute 17:00etan, eta 19:30ean eta 22:00etan, *Caza a la espia*, eta astelehenean, 20:30ean, *Heroes*.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

LAGUN ARO GBC
Meridiano Alicante
saskibalo partida

Urtarrilak 2 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

Atzo goizean egindako Ohiko Osoko Bilkuran aho batez onartu zituzten 2011rako diru-sarrerara eta gastuak

Erredakzioa Ibarra

2011ko Udal Aurrekontuak aho batez onartu zituzten Ibarako Udal ordezkariak, atzo goizean egindako Osoko Bilkuran. Datorren urterako aurreikusten diren diru-sarreraren eta gastuen kopurua orotara 4.575.750 eurotakoa izango da. Hau da, ia zkoa baino nabarmen txikiagoa. Orduan 6.961.500 eurotakoa izan baitzen. Jaitsiera honen arrazoi nagusiak dira, datorren urtean ez dela egongo Enplegua Sustatzeko Estatu Planik eta ezta herri inbertsioak finantzatzeko mailaguririk ere. Lau miloi eta erdi horietatik %12,25 inbertsioetarako bideratuko dute.

Txelo Romeo alkatearen esanetan «oraingo honetan, etxeko lanak oso ongi egin ditugu, eta hori aurrekontuetan ikusi daiteke». Nabarmendu zuen zorpetze tasa %2,88koa dela, «inguruko herri askotakoa baino baxuagoa».

↓ **4.575.750**

AURREKONTU OROKORRA

- **2011.** Aurreikuspenen arabera, datorren urtean 4.575.750 euroko diru-sarrerak eta gastuak izango dituzte.
- **2010.** Amaitzean den urte honetarako onartutako aurrekontua dezentzia handiagoa zen Zapatero Planagatik. 6.961.500 eurotakoa hain zuzen ere.

Datorren urtera begira, inbertsio nagusia UA11. eremuko eraikin dotzionala izango da. HITZA

Inbertsioetarako 560.855 euro bideratuko ditu datorren urtean udalak

Udal ordezkariaren esanetan, «aurrekontu hauekin errekurtsioak optimizatzea da, kontrolaren, arrazionalizazioaren, eraginkortasun eta gastu arruntaren neurketaren bitartez». Honez gain, gizarte arloarekin lotutako azpiegiturak indartzea izan da beraien indar nagusia. Hau zuzenki lotua dago eraikitzean den eraikin dotzionalarekin. Bertan, pisu tutelatuak, eguneko zentrua eta adinekoen egoitza jarriko dituzte.

Gastu arrunta ere murriztu egingo da, 4.146.200etik 3.913.395era. Pertsonal gastuari dagokionean berriz, mailatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretuak eragina izango du. Honela irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran onartutakoaren arabera, EU-beste asmoetako bat. Hau zuzenki lotua dago eraikitzean den eraikin dotzionalarekin. Bertan, pisu tutelatuak, eguneko zentrua eta adinekoen egoitza jarriko dituzte.

berriak egin baitira. Tartean, arkitektoarena (lanaldi erdian) eta idazkariarena. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Errejimen Lokaleko Zuzendaritzak Ibarako Idazkaritza bigarren mailakotzat jo zuen 2009ko ekainean emandako erabakian. Honela, maila hau zuzen idazkaririk ez zegoenez Udalean, beste bat kontratatu dute.

Honenbestez, denera, 1.336.328 euro bideratuko dituzte 2011n soldatak ordaintzeko.

Bestalde, gastu arrunta handi-

↓ **2011ko aurrekontua**

INBERTSIOAK

- **Egialdeko baserrien seinaleztapena.** 1.000 euro.
- **Ekipamendu hiritarrak.** 6.000 euro.
- **Haur parkeen erreformak.** 2.500 euro.
- **Egialdeko bidea konpontzea eta hobetzea.** 110.000 euro.
- **Behetikobide 14ko hormaren egokitzapena.** 22.000 euro.
- **Bide publikoetako urbanizazioak.** 37.000 euro.
- **Hirigintza proiektuen erredakzioa.** 10.000 euro.
- **UA11.ko Dotazio Eraikinaren eraikitzea.** 4.788.822 euro.
- **UA6. jabetze lokala (BEZ).** 53.100 euro.
- **Kultur etxeko eraikinaren berritze lanak.** 6.500 euro.
- **Kiroldegiko erreforma lanak.** 15.500 euro.
- **Ibai Gain 4. zenbakiko gazteetxearen erreforma lanak.** 17.000 euro.
- **Inbentarioa egin daitekeen obra eta zerbitzuetarako materiala.** 10.000 euro.
- **Ekipo informatikoen erosketa.** 4.135 euro.
- **Kiroldegirako material informatikoen erosketa.** 1.200 euro.
- **Fondo bibliografikoen erosketa.** 10.000 euro.
- **Denera.** 560.855 euro.

ztea aurreikusten da. 115.000 eurotan gutxi gorabehera. Denera, 1.966.924 eurotakoa izango delarik. Baina aldez, udalak luzatutako datuen arabera, transferentzia arruntak nabarmen gutxituko dira, 938.724 eurotatik 591.893tara.

Irudia Tolosa



JOTZEN SEGITZEKO 1.400 ARRAZOI

Poxpolo ta konpainiak *Segi jotzen* lana estreinatuta zuten asteburuan. Bi emanaldi eskaini zituzten, eta bietan ere, aretoa jende lepo betetzea lortu zuten. Denera 1.400 ikusle gozatu zutelarik Tolosako pailazoarekin eta bere lagunekin. Sketch eta

abesti berriez osatutako saioak Eguberri kutsua ere izan zuen. Bereziki tolosarrentzako egindako emanaldia zen, eta hauek ongi erantzuten jakin zuten. Izan ere, Poxpoloren heriotza eta gero, bide berri bati ekion diote eskualdekoek. NEKA

Jon Jaunarenak gaur debutatuko du profesional gisa Tolosan

Hiru urterako kontratua sinatu du Asperekin; 17:00etan hasiko da Beotibar pilotalekuko jaialdia

Erredakzioa Leitza

Gaur arratsaldean, Tolosako Beotibar pilotalekuan egingo du debuta Jon Jaunarena aurrelari leitzarrak. Hemezortzi urteko gazteak Abel Barriola herrikidea izango du bikote eta Aritz Lasa eta Pascual aurkari. 17:00etan hasiko da jaialdia. Aurretik beste partida bat izango da ikusgai: Apeztexea-Arruti eta Idoate-Merinoen artekoa.

JON JAUNARENA

- **Jaioterria.** Leitza (1992/02/03)
- **Altura.** 1,87 metro.
- **Pisua.** 83 kilo.
- **Palmaresa.**

- Elgetako Lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen 2007an.
- Zaldibarko Lau t'erdikoa 2009an.
- Altsasuko Santo Cristo txapelketa irabazi du orain.

Duela hilabete inguru, azaroan sinatu zuen Jon Jaunarenak hiru urterako kontratua Aspe pilota enpresarekin. Honenbestez, Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaizola herritarrekin batera ariko da lehia hemendik aurrera.

Urte berriarekin batera hasiko dira kultur etxeko berokuntza sistema jartzen

Kultur etxeari erantsita dagoen haur eskola urtarriaren 3an egongo da martxan jartzeko moduan

Rebeka Calvo Alegia

Urte berriarekin batera hainbat lan egingo dituzte Alegian. Bateatik, kultur etxean berokuntza sistema berria jartzeko lanak hasiko dituzte. Lanek 2 hilabeteko iraupena izango dute eta 80.000 euro bideratuko dituzte horretara. Bestetik, kultur etxeari erantsita egin den haur eskola urtarriaren 3an egongo da martxan jartzeko moduan. Eguberrietan egingo da lekualdaketa kalebeherakoa hustu eta berria hornitzeko. Urtarriaren 8an, era berean, haur-eskola eta gimnasio berria erakusketa zabalduko dute herritar guztiek ikusteko aukera izan dezaten.

Euskaltekin hitzarmena

Udalak hizarmen bat sinatuko du Euskaltel enpresarekin.

Hitzarmen horren bidez Euskaltelek 600.000 euro inguruko inbertsioa egingo du udalerrian eta hartara etxebizitza guztiek izango dute aukera kable bidezko telebista digitala ikusteko eta azken belaunaldiko banda zabaleko zerbitzuak telekomunikazio sistemak erabiltzeko. Lanen iraupena urtebeteko izatea aurreikusten da.

Tasak eta zergak

Urte berriarekin batera, dena den, badira urtero errepikatzen diren aldaketak, tasa eta zergei dagozkienak, hain zuzen. Horiek horrela, ura %10 igoko da Alegian.

Salbuespena da, izan ere, orokorrean tasa eta zerga guztiak KPIaren arabera igoko dira, baina azken urteetan izandako gastuen ondorioak direla eta erabaki dute igotzea. «Batez ere, Ibiurko ur biltegirik zerbitzua jasotzeak eta sarean egindako hobekuntzen ondorio gastuak ikaragarri handitu dira eta urteko aurrekontuan 120.000 euroko zuloa utzi du. Aurrerantzean honek suposatzen duen kostura inguratzen joan beharra dago», azaldu du Aitor Sarasola alkateak.

Igoeraren inguruko azalpen gehiago ere eman ditu: «Badakigu tasa hauek udalak ematen duten zerbitzu batean kokatzen direla eta ez dutela zertan parekatu behar eta are gutxiago etekina ateratzeko izan, baina azkenaldian karga dezentea bihurtzen ari da eta oraingoan goiera handixeagoa izatea proposatu da».

Hala ere, tarifaren antolaketan eta hobari zein laguntzetan ere aldaketak egin dituzte. «Hasteko minimoa jaitsi egin da, gutxi gatzatzen dutenek ordaindu beharreko txikiagoa izate aldera. Beraz 30 m2 baino gutxiago erabiltzen duenak ordaindu beharko du minimo hori (0,35 euro metro 2ko).

Hobari berria ere sortu dute; bost pertsona edo gehiago bizi diren etxebizitzetan %30 gutxiago ordaindu beharko dute uraren fakturan.

«Laburbilduz, aurreko bi urteetan igoerei eutsi nahi izan genien, 2009an KPIa denetan eta zaborrarak %10 eta ia igoerarik ez (KPIa ere ez)», azaldu du alkateak. «Ur kontsumoa egokia izate aldera gutxien erabiltzen dutenei, eta behar gehiago dutenei gutxiago kobratzea hobetsi dugun», gaineratu du alkateak.



Segituan hasiko dira Kultur etxean berokuntza sistema berria jartzen. E.MAZ

Orain arteko itxura aldatu du udalak logo berriarekin

R.C. Alegia

«Orain arteko itxura aldatu nahi genuen», dio Aitor Sarasola alkateak logo berriaren inguruan hitz egiterakoan. «Udalaren irudi ofi-

ziala orain artekoa izango da, hau da, armarrria, baina formalismo hori kendu nahian herrirako beste logo berri bat nahi genuen», gaineratu du.

Logo berria Tolosako Hamai-

kaWeb enpresak egin du eta bertan herriko bi ikur nagusiak ikusten dira, udaletxea eta zubi zaharra. Aipatu beha da, Hamai-kaWeb enpresa ari dela udalaren webgune berria egiten.



Alegiako
Udala

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



PAKO LANGARIKA TELLERIA

Atzo hil zen, 57 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

*Ez agurrik, ez adirik
gero arte baizik.*

*Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu*

Bere lagun Julian, Pili, Ainhoa eta Gorka.

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Mikel Goiaingeruaren parroki elizan, gorpua bertan dela. Eskerrik asko guztiei aldeztu aurretik.

IDIAZABAL, 2010eko abenduaren 29a

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, aitor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko gutxiak egokitzen diren Hileta Zerbitzu Pakua eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

AZOKA

■ **Tolosa.** Sahara eta Ekuadorren aldeko Merkatu Txikia, kultur etxean.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Indekitxen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tangana tadeen kontzertua, Bonberenean, 22:30etik aurrera.

GAZTEENTZAT

■ **Alegia.** Gabonetako pilota topaketak, 16:00etatik aurrera. Finala Ametzeta jokatu dute.

■ **Ibarra.** Gabonetako euskal ipuinak saioa, Ixabel Milleten eskutik, 11:30ean kultur etxean.

■ **Irura.** Talogintza ikastaroa 16:00etatik 20:00etara.

17:30ean, Ane Monna, Oskola eta karramarroi taldearen *Harritxu Maritxu* antzezlan.

■ **Tolosa.** Euskal selekzioaren partida ikustera joango dira gazteak. Gabonetako haur parkea, egun osoan zabalik.

Irudia Tolosa



ELKARTASUNAREN MERKATUA ZABALIK

Laskorain ikastolak antolatuta, kultur etxean zabalik da Merkatu Txikia. Denetarik eskuratu ahal du bertara gerturatzen denak: liburuak eta filmak, jostailuak, haurrentzako, mutilentzako eta emakumeentzako arropa, etxeko gailuak edota apaingarriak, besteak

beste. Hauek guztiak prezio baxuan eskuratzearekin batera, beharra dutenei laguntzen zaie, izan ere, pasa den urtean bezala, Sahara eta Ekuadorko proiektuetara bideratuko da urtarrilaren 9ra arte bertan biltzen duten dirua. ITERRADILLOS

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Amona Jexuxak gaur 77 urte eta biloba Leirek hilaren 26an 11 urte.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker,

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

**BERRIA taldeak
zure laguntza behar du**

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. **Apuatu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.**

Ekarpena egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin



- **Transferentzia Euskadiko Kutxan:**
3035 0060 48 0600113162
(izen-abizenak zehaztu)
- **Kreditu txartelaren bidez:**
zuzaraberria.info webgunean

*Bihar ere euskaraz
bizitzeko tresnak
izan ditzagun!*



berrieta.info



www.berria.info
euskal kazetgarren ataria

www.euskalherriko
plaza.com

iragarkilaburrak.com



berria
taldea